TXORIERRIKO MANKOMUNITATEA

MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS DEL TXORIERRI - TXORIERRIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAREN OSOKO BILKURAK 2015eko URRIAREN 26an EGINIKO OHIKO EKITALDIKO AKTA.

ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE LA JUNTA PLENARIA DE LA MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS DEL TXORIERRI - TXORIERRIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA, CELEBRADA EL DIA 26 DE OCTUBRE DE 2015.

BERTARATUAK:

MANKOMUNITATEBURUA:
Igotz López Torre jn.

MANKOMUNITATEBURUORDEAK:
Miguel Ángel Gaztelu Barrena jn.
Esther Apraiz Fernández de la Peña and.

BATZORDEKIDEAK:
Ixone Urrutikoetxea Ukar jn.
Mª Carmen Álvarez Palencia and.
Clementino Caballero Monge jn.
Iñigo Gastelu Bilbao jn.

Arantza Itziar Martínez and.
María Luisa Mezo Loroño and.
Jon Ander Aurrekoetxea Artetxe jn.
Josu Cámara Izagirre jn.
Ibon Blanco Arcocha jn.
Josu Andoni Begoña Fernández de Arroiabe jn.
Asier Bilbao Aurrekoetxea jn.

Ana Mª Soto Martínez and.
Idoia Bilbao Díez and.
Xabier Zubiaur Agirre jn.
Beatriz Ortiz González and.
Mª Luz Palacio Sagarduy
Elena Iglesias Méndez and.
Manuel Francisco Heredero
Iker Oar Lekerika

BERTARATU EZ DIREN BATZORDEKIDEAK:
Maite Bolunburu Olabarrieta and.
Ikerne Zuluaga Zamalloa and.
Laiene Cristóbal Royo and.

ASISTENTES:

PRESIDENTE:
D. Igotz López Torre

VICEPRESIDENTES:
D. Miguel Ángel Gaztelu Barrena
Dña. Esther Apraiz Fernández de la Peña

VOCALES:
Dña. Ixone Urrutikoetxea Ukar
Dña. Mª Carmen Álvarez Palencia
D. Clementino Caballero Monge
D. Iñigo Gastelu Bilbao

Dña. Arantza Itziar Martínez
Dña. María Luisa Mezo Loroño
D. Jon Ander Aurrekoetxea Artetxe
D. Josu Cámara Izagirre
D. Ibon Blanco Arcocha
D. Josu Andoni Begoña Fernández de Arroiabe
D. Asier Bilbao Aurrekoetxea

Dña. Ana Mª Soto Martínez
Dña. Idoia Bilbao Díez
D. Xabier Zubiaur Agirre
Dña. Beatriz Ortiz González
Dña. Mª Luz Palacio Sagarduy
Dña. Elena Iglesias Méndez
D. Manuel Francisco Heredero
D. Iker Oar Lekerika

VOCALES AUSENTES:

Dña. Maite Bolunburu Olabarrieta
Dña. Ikerne Zuluaga Zamalloa
Dña. Laiene Cristóbal Royo

C.I.F.: P-4800017-H



Txorierri Etorbidea, 9 - 48160 DERIO (Bizkaia) Telfs. 944 54 03 50 - 944 54 01 65 - 944 54 22 43 - Fax 944 54 27 38 E-maila: mankomunitatea@txorierri.eu

IDAZKARIA:
Ana Errasti Ortiz and.

SECRETARIA:
Dña. Ana Errasti Ortiz

Mankomunitateko batzar-aretoan Mancomunidad de Servicios del Txorierri – Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearen Osoko Bilkura osatzen duten kideak lehenengo deialdian batzartu dira.

En la Sala de Sesiones de la Mancomunidad se reúnen en primera convocatoria los componentes de la Junta Plenaria de la Mancomunidad de Servicios del Txorierri – Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea.

Igotz López Torre jauna da batzordeburua eta idazkaria naizen honek lagundu diot.

Preside la sesión, D. Igotz López Torre, asistido de mí, la Secretaria.

18:37ak direnean, eta arestian aipatu diren batzordekideak bertan daudela, mankomunitateburu jaunak ekitaldiari hasiera eman dio; horrenbestez, jarraian eguneko aztergaien zerrenda osatzen duten auzi hauek jorratu dira:

Siendo las 18:37 horas, y estando presentes los vocales mencionados más arriba, el Sr. Presidente abre la sesión procediéndose a tratar los asuntos comprendidos en el siguiente orden del día:

LEHENENGOA.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONESTEA, HALA BADAGOKIO (2015/09/14).

PRIMERO.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR (14/09/2015).

Mankomunitate jaunak eskatu die batzordekideei 2015eko irailaren 14an egin zen saioko aktaren edukiaren inguruan ados dauden edo oharpenik duten adierazteko.

Beatriz Ortiz andreak zein Asier Bilbao jaunak adierazi dute ez dutela bozkatuko, aurreko ekitaldian egon ez ziren eta.

Ez da oharrik egin aipatutako aktaren inguruan; horrenbestez, bertaratu diren gainerako batzordekideek aho batez onetsi dute..

Eguneko aztergaien zerrendako hurrengo gaiari heldu aurretik, Clementino Caballero jaunak hartu du hitza, eta esan du oraindik ere Osoko Bilkuraren akta bat onetsi gabe

Por el Sr. Presidente se solicita de los presentes la manifestación de su conformidad o reparos al contenido del acta de la sesión celebrada el día 14 de septiembre de 2015.

Tanto Dña. Beatriz Ortiz como D. Asier Bilbao manifiestan que se van a abstener en la votación, puesto que no estuvieron en la sesión anterior.

No formulándose ninguna observación en relación al acta mencionada, está queda aprobada por unanimidad del resto de los vocales presentes.

Antes de pasar al siguiente punto del orden del día, toma la palabra D. Clementino Caballero para decir que

dagoela, uztailaren 23koa hain zuzen ere, Osoko Bilkura osatzeko bilkurarena. Bilkura horren hurrengo bilkurako aztergaien zerrendan, irailaren 14koan, ez zen bilkura horren akta onesteko puntua jaso, eta ondorioz, oraindik onetsi gabe dago.

hay un acta de la Junta Plenaria que está todavía sin aprobar, que es la de la sesión de su constitución, que tuvo lugar el pasado 23 de julio. No se incluyó su aprobación en el orden del día de la sesión siguiente, la celebrada y 14 de septiembre y, por tanto, está todavía sin aprobar.

Idazkariak horrela dela egiaztatu du, eta esan du bere akatsa izan zela. Osoko Bilkurari jakinarazi dio bihar bertan bidaliko diela akta. Idatzita dago jadanik, eta beraz, hurrengo osoko bilkuran onetsiko dute.

La Secretaria le confirma que, efectivamente, ha ocurrido así, y que se trata de un error suyo. Informa a la Junta Plenaria que mañana mismo se les enviará el acta, puesto que está redactada, y se incluirá su aprobación en la siguiente sesión que se celebre.

BIGARRENA.- 2015eko UZTAILAREN 23an EGIN ZEN ERAKETA-BILKURARA BERTARATU EZ ZIREN OSOKO BILKURAKO ORDEZKARIAK KARGUAZ JABETZEA.

SEGUNDO.- TOMA DE POSESIÓN DE LOS/LAS REPRESENTANTES EN LA JUNTA PLENARIA QUE NO ASISTIERON A LA SESIÓN CONSTITUTIVA CELEBRADA EL DÍA 23 DE JULIO DE 2015.

Josu Cámara Izagirre jaunak Osoko Bilkurako kide karguaz jabetu da, Lezamako Udalek izendatutako ordezkari gisa, eta mankomunitateburu jaunak ongietorria eman dio.

Procede a tomar posesión de su cargo como vocal de la Junta Plenaria D. Josu Cámara Izagirre, representante designado por el Ayuntamiento de Lezama, al que el Sr. Presidente le da la bienvenida.

HIRUGARRENA.- MANKOMUNITATEBURUAK HARTUTAKO DEKRETUEN BERRI EMATEA.

TERCERO.- DAR CUENTA DE LOS DECRETOS DE LA PRESIDENCIA.

Osoko Bilkurako kideei jakinarazi zaie mankomunitateburuaren 169/2015etik 391/2015era bitarteko dekretuak onetsi direla 2015eko apirilaren 15etik urriaren 21era arte, hau da, gaurko saioaren deialdia egin den egunera arte.

Se da cuenta a los vocales de la Junta Plenaria de la aprobación de los decretos de Presidencia 169/2015 a 391/2015, aprobados entre el 15 de abril y el 21 de octubre de 2015, fecha de convocatoria de la sesión de hoy.

Josu Cámara jaunak galdetu du ea dekretuak eskaneatuta bidali ahal diren, Mankomunitateko egoitzara joan

D. Josu Cámara pregunta si no se podrían enviar los decretos escaneados, para facilitar su consulta

behar izan gabe kontsultatu ahal izateko.

sin tener que acudir a la sede de la Mancomunidad.

Mankomunitateburu jaunak eskaera aintzat hartu du, eta esan du dekretuak talde politikoen bozeramaileei bidaliko zaizkiela hilero, gizarte-zerbitzuei buruzkoak izan ezik. Izan ere, babestu beharreko datu pertsonalak jasotzen dituzte horiek, eta ondorioz, ez dira eskaneatuta bidaliko; baina Mankomunitatearen egoitzan kontsultatu ahal izango dira.

Considerando la petición, el Sr. Presidente dice que se enviarán los decretos a los portavoces de los grupos políticos de forma mensual, excepto los que se refieran a expedientes de servicios sociales, que por contener datos personales objeto de protección no se enviarán escaneados, pero podrán ser consultados en la sede de la Mancomunidad.

LAUGARRENA.- ONESTEA, HALA BADAGOKIO, ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUKO KONTRATUAREN LUZAPENERAKO AKORDIOA.

CUARTO.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE ACUERDO DE PRÓRROGA DEL CONTRATO DE PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO.

Erabaki-proposamena irakurri da.

Se da lectura a la propuesta de acuerdo.

Josu Cámara jaunak, Txorierriko EH BILDUren bozeramaileak, esan du bere taldea abstenitu egingo dela. Izan ere, eskuragarri duten informazioarekin ezin izan dute gaiari buruzko iritzi bat osatu, nahiz eta bidaltzea erabaki zen espedienteko dokumentazioa jaso duten.

D. Josu Cámara, portavoz de Txorierriko EHBILDU dice que su grupo se va a abstener porque con la información de la que disponen no han podido formarse una opinión al respecto, aunque han recibido la documentación del expediente que se acordó enviar.

Euskal Sozialisten bozeramaile Clementino Caballero jaunak, bere aldetik, esan du bera ere abstenitu egingo dela, ez baitago ados Urgatzi enpresa esleipenduna izatearekin.

Por su parte, D. Clementino Caballero, representante de Socialistas Vascos, dice que el también se va a abstener, porque no está en la tesitura de adjudicar a una empresa así, no está de acuerdo en que la adjudicataria sea Urgatzi.

Osoko Bilkurak, Eusko Abertzaleak taldeko 15 batzordekideen aldeko botoekin eta Txorierriko EH Bilduko sei (6) kideen eta Euskal Sozialisten taldeko kidearen (1) abstentzioarekin,

La Junta Plenaria, con el voto favorable de los 15 representantes de Eusko Abertzaleak y la abstención de los 6 vocales de Txorierriko EHBILDU y del vocal (1) de Socialistas Vascos,

honako akordio hau onetsi du:

Ikusi da 2015eko irailaren 9an (sarrera-erregistroko zenbakia: 1.536) Juan Carlos Del Campo Bidaurrazaga jaunak, ongizatea sustatzeko Urgatzi elkartearen izenean eta bertako ordezkari gisa, aurkeztu zuen idatzia. Bertan eskatzen du Etxeko Laguntza Zerbitzua xede duen kontratua luzatzeko. ongizatea sustatzeko Urgatzi elkartea da esleipenduna, 2012ko urriaren 15eko Osoko Bilkurak onetsitako erabakiari jarraikiz.

Ikusi da idazkari eta kontu-hartzaileak 2015eko urriaren 16an eginiko txostena.

Ikusi da Ogasuna, Barne Arazoak eta Zerbitzuak Informazio Batzordeak 2015eko urriaren 19an egindako proposamena.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 LEDaren 303. artikuluan eta administrazio-baldintza berezien pleguko 7. klausulan aurreikusitakoarekin bat etorriz, Osoko Bilkurak honako erabaki hau hartu du:

Lehenengoa.- urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra luzatzea (bigarren eta egin daitekeen azken luzapena) Etxeko Laguntza Zerbitzua xede duen kontratua. Ongizatea sustatzeko Urgatzi elkartea da esleipenduna.

Bigarrena.- Kontratuaren zenbatekoa administrazio-baldintza berezien

aprueba el siguiente acuerdo:

Visto el escrito con registro de entrada 1.536, de fecha 9 de septiembre de 2015, firmado por D. Juan Carlos Del Campo Bidaurrazaga, en nombre y representación de Asociación Urgatzi para la Promoción del Bienestar, en el que solicita la prórroga del contrato que tiene por objeto la prestación del Servicio de Ayuda a Domicilio, del que es adjudicataria Asociación Urgatzi para la Promoción del Bienestar en virtud de acuerdo aprobado por la Junta Plenaria en sesión celebrada el 15 de octubre de 2012.

Visto el informe de Secretaría – Intervención de fecha 16 de octubre de 2015.

Vista la propuesta de la Comisión informativa de Hacienda, Interior y Servicios de fecha 19 de octubre de 2015.

De conformidad con lo previsto en el artículo 303 del texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por el RDL 3/2011, de 14 de noviembre, y en la cláusula 7 del pliego de cláusulas administrativas particulares, la Junta Plenaria aprueba el siguiente acuerdo:

Primero.- Prorrogar desde el día 1 de enero hasta el día 31 de diciembre de 2016 (segunda y última de las prórrogas posibles) el contrato que tiene por objeto la prestación del Servicio de Ayuda a Domicilio, del que es adjudicataria Asociación Urgatzi para la Promoción del Bienestar.

Segundo.- El precio del contrato se revisará de conformidad con lo

pleguko 35. klausulan ezarritakoaren arabera berrikusiko da:

dispuesto en la cláusula 35 del pliego de cláusulas administrativas particulares:

*Etxeko Laguntza Zerbitzuaren kontratuaren esleipenaren orduko prezioa arau hauen arabera berrikusiko da:*

*El precio/hora de adjudicación del contrato de prestación del servicio de ayuda a domicilio se revisará con arreglo a las siguientes normas:*

*- Lehen urtean, esleipendunak eskainitako prezioa ordainduko da, pleguan aurreikusitako eran.*

*- Durante la primera anualidad, se abonará el precio/hora ofertado por la adjudicataria en la forma prevista en este pliego.*

*- Hurrengo urteetan berrikusi egingo da eta Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako kontsumorako prezioen indizearen urte arteko igoera edo jaitsiera aplikatuko zaio, SPKLTBko 90.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.*

*- En las sucesivas anualidades se revisará aplicando al mismo el incremento o decremento interanual que experimente el Índice de Precios al Consumo publicado por el Instituto Nacional de Estadística, según lo previsto en el artículo 90.3 del TRLCSP*

*- Prezioak, hala balegokio, urte naturalean berrikusiko dira, aintzat hartuta SPKLTBko 91.3 artikuluan xedatutakoa.*

*- La revisión de precios tendrá lugar, en su caso, con el año natural, teniendo en cuenta lo establecido en el artículo 91.3 del TRLCSP.*

*- Aurreko atalean aurreikusitako berrikuspen-kasuetatik kanpo, ez da prezioen berrikuspenik egingo, kontratatutako zerbitzuaren osagaien kostuetan izandako dena delako aldaketak gorabehera, eta, bereziki, langileen soldatei dagokiena.*

*- Fuera del caso de revisión previsto en el apartado anterior, no se realizará revisión alguna de precios, cualquiera que fuera la variación que experimenten los costes de los distintos elementos integrantes del servicio contratado y, en particular, los salarios del personal.*

Hirugarrena.- Ebazpen hau jakinaraztea ongizatea sustatzeko Urgatzi elkarteari, eta eskatzea kontratua luzatzeko administrazio-agiria formaliza dezan.

Tercero.- Notificar la presente resolución a Asociación Urgatzi para la Promoción del Bienestar y requerirle para que proceda a la formalización en documento administrativo de la prórroga del contrato.

BOSGARRENA.- NORBERAK LEKARKEENA.

QUINTO.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

Jorratzeko gai gehiagorik ez dagoenez, mankomunitateburu jaunak bilkura amaitutzat eman du 18:47ak direnean, eta idazkaria naizen honek honela ZIURTATZEN DUT.

No habiendo más asuntos que tratar, por el Sr. Presidente se levanta la sesión, siendo las 18:47 horas, de lo que yo, la Secretaria, CERTIFICO.

OE / Vº Bº
MANKOMUNITATEBURUA / EL PRESIDENTE

IDAZKARIA / LA SECRETARIA